Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4727

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 31koa, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariarena, Gurutzerako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Komite Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariaren 2006ko azaroaren 23ko Ebazpenaren bidez, kreditazioa berritu zitzaion Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari (urtarrilaren 15eko EHAA, 10. zenbakia).

Ospitaleak eskaera egin du Batzordeko kideak aldatzeko. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Komite Etikoen kreditazioari buruz Osasuneko sailburuak 1994ko irailaren 28an emandako Aginduaren 3. eta 7. artikuluetan (urriaren 24ko EHAA, 202. zenbakia) eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuan agintzen denarekin bat etorriz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Beatriz Pacho Martín andrea, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziatua, Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Klinikoetarako Etika Batzordeko kide modura izan duen postutik kentzea.

Bigarrena.– Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina. Ebazpena, bestalde, Osasun eta Kontsumo Ministerioari jakinaraziko zaio.

Hirugarrena.– Ebazpenak ez du administrazio-bidea amaitzen; beraz, honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Osasuneko sailburuordeari edo Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 31.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

4727

RESOLUCIÓN de 31 de julio de 2009, del Director de Planificación y Ordenación Sanitaria, por la que se modifica la composición nominal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Cruces.

Mediante Resolución de 23 de noviembre de 2006, del Director de Planificación y Ordenación Sanitaria (BOPV n.º 10, de 15 de enero), se concedió la renovación de la acreditación al Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Cruces.

Habiéndose recibido del Hospital solicitud para modificar la composición del Comité, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 3 y 7 de la Orden de 28 de setiembre de 1994, del Consejero de Sanidad (BOPV n.º 202, de 24 de octubre), de acreditación de los Comités Éticos de Investigación Clínica en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y al Decreto 268/2001 de 6 de noviembre por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad.

RESUELVO:

Primero.– Cesar como miembro vocal del Comité Ético de Investigación Clínica del Hospital de Cruces a doña Beatriz Pacho Martín, Licenciada en Medicina y Cirugía General.

Segundo.– La presente Resolución surtirá efecto a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Así mismo, será comunicada al Ministerio de Sanidad y Consumo.

Tercero.– Contra la misma, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados formular recurso de alzada ante el Viceconsejero de Sanidad o el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a aquel en que tiene lugar su publicación oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de julio de 2009.

El Director de Planificación y Ordenación Sanitaria,
JOSÉ ASUA BATARRITA.